

ELKAR ULERTZEKO MEMORANDUMA, Kanadako Parkeen Agentziaren

eta, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren artekoa.

Gaia:

Kanadako Parkeen Agentziak eta, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, aurrerantzean "sinatzaileak".

Kontuan hartuta Euskal lurraldeak eta Ternua eta Labrador probintziak elkarrekin partekatzen duten historia;

Nahi izanda elkarren arteko adiskidetasun-harremanak sendotu eta hobetzea, bere jurisdikzioetako pertsonak elkar aditzean sakontzea eta kultura-lankidetzak eta -trukeak sustatzea;

Kontuan hartuta Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) kultura- eta ingurumen-arloan garatutako lana;

Aitortuta elkarren arteko kultura-harremanak indartzeak kultura-merkatuak zabaltzea, efizientzia hobetu, aukerak sorrarazi eta bien kultura-baliabideak aberastu;

Konpromisoa hartuta kultura-ondarea sustatzeko bakoitzak bere jurisdikzioan eta nazioartean, bat etorrita Kultura-adierazpideen aniztasuna babestu eta sustatzeko UNESCOren Konbentzioarekin, 2005eko urriaren 30ean egin baitzen Parisen.

Nahi izanda jarraipena ematea Kanadako Parkeen eta Euskal lurraldeko erakunde batzuen arteko aspaldiko lankidetzari partekatutako historiaren eta kulturaren alorrean;

Nahi izanda, elkartze etiko eta estrategikorako akordioaren bitartez, aukera berri eta handiagoak sortzea, pertsonak, bizipen paregabeen bidez, toki babestuekiko lotura-sentipen indartsua aurkitu eta garatu ahal izan dezaten;

Asmoa izanda ahalegina egitea elkarlanerako esparru bat sortzen, kultura-ondarearen leku edo tokien oroitzapena, kontserbazioa eta aurkezpena koordinatze aldera,

Elkar Ulertzeko Memorandum hau iritsi dute:

1. Xedea

Elkar Ulertzeko Memorandum (MOU) honen xedea da:

- (i) arloak identifikatzea, sinatzaileek aurrera egin, helburu erkideak erdietsi eta beren lankidetzak jendaurrean aitortu dezaten;
- (ii) sinatzaileen harremana garatu eta sendotzea elkarren arteko jardueren bitartez, modu ireki eta gardenean.

2. Alderdi bientzako interesa duten lankidetzak-arloak

Sinatzaileen arteko lankidetzak hauek hartuko ditu:

- i) arretaz aztertzea kultura-informazioaren trukea eta elkarren arteko kultura-proiektuak hobetzeko aukerak;
 - ii) kultura-ondarearen alorrean izan daitezkeen proiektu berri edo zabalduak identifikatzea;
 - iii) informazio publikoko programak eta materialak sortzea, komunitateak hobeto uler ditzan eta gehiago lagundu kultura- eta ondare-helburuak;
-

- iv) euskaldunentzat eta kanadarrentzat garrantzia duten ondare-lekuak eta kultura-baliabideak elkarrekin identifikatzea, kontserbatzea eta interpretatzea;
- v) ondareari buruzko baterako ekimenak garatzea;
- vi) kultura-ondarearen baliabideak eta lekuak ikertu, inbentariatu, dokumentatu eta monitorizatzea;
- vii) Munduko Kultura Ondarea Babesteko Hitzarmenean parte hartze sendoagoa izatea, Parisen sinatu baitzuten 1976ko azaroaren 16an, eta nazioarteko erakundeetan ere parte hartzea, hala nola Monumentuen eta Lekuen Nazioarteko Kontseiluan (ICOMOS).

3. Bien interesekoak diren arloei lotutako jarduerak

- (a.) Sinatzaileak lankidetzan ariko dira komunikazio aktiboaren eta baterako jardueren bitartez, hala nola:
 - i. kultura-, ondare-, historia- eta arkeologia-erakusketen trukea, barnean hartuta giza- eta gizarte-historia eta ondarea;
 - ii. arkeologo, etnologo, museoetako profesional eta beste batzuen arteko elkartrukea erraztea, ezagutza, trebetasuna eta informazioa eman ahal izan dezaten, zenbait alorretakoa: partekatutako historia, kultura-talde desberdinak, aniztasuna, identitatea eta antzekoak. Helburua litzateke alor horietako esperientzia eta prestakuntza lortzea, besteak beste; eta
 - iii. Kultura-ondarearen inguruko elkarteetako eta erakundeetako ordezkariak elkarri bisitak egitea, biltzarretan, sinposioetan eta mintegietan parte har dezaten.
- (b.) Sinatzaileek akordio zehatzagoak egingo dituzte Elkar Ulertzeko Memorandum honen esparruan egindako jardueretarako.
- (c.) Beharrezkoa denean, sinatzaileek berariazko tresna juridikoki lotesleak hitzartuko dituzte Elkar Ulertzeko Memorandum honen esparruko jarduerak garatze aldera, eta funtsen edo bestelako baliabideen konpromisoarekin zerikusia duen edozein gairi ere helduko diote.

4. Lankidetzaren aitortza

- (a) MOU honen esparruan izandako lankidetzaren aitortuko dute parte-hartzaileek, bakoitzaren ekarpen erlatiboaren heinean aitortuko ere.
- (b) Sinatzaileek elkarren adostasunez begiratuko dute Elkar Ulertzeko Memorandum honen barruko lankidetzaren dela eta garatutako komunikazio, produktu edo merkataritza-material orok bete ditzala sinatzaileetako bakoitzak marka ofizial eta sinboloen erabilerari buruz dituen politikak eta jarraibideak.
- (c) Parte-hartzaileek onartzen dute MOU honen esparruko lankidetzari edo jarduerari buruzko aintzatespenak ez dakarrela gainerako produktu edo zerbitzuen onarpena.

5. Jarduera independenteak

Sinatzaileek onartzen dute MOU honek ez diela bakoitzaren eragiketarako autonomia mugatzen, eta aukera dutela, baita ere, beste lankidetzaren akordio batzuk egiteko beste partaide batzuekin.

6. Informazioa trukitzea

- a. Sinatzaileek informazioa emango diote elkarri Elkar Ulertzeko Memorandum honetan aurreikusitako lankidetzari eta jarduerari buruz, dagokion bezala, bakoitzaren legeria nazionalaren arabera.
- b. Sinatzaileek berriazko akordio juridikoki lotesleak egingo dituzte, jabetza intelektualak babestutako informazio-trukeari buruzkoak, MOU honen 3. artikulua c) apartatuarekin bat etorrira; egin ere, truke hori ekar lezakeen elkarren arteko edozein jardueraren hasieran.

7. Harremanetarako informazioa

Kanadako Parkeak:

Mr. Geoffrey Hancock
Kargua: Field Unit Superintendent, Western Newfoundland & Labrador Field Unit
P. O. Box 130,
Helbidea: Rocky Harbour, NL A0K 4N0 Canada
Tel: 709-458-3550
Posta elektronikoa: geoffrey.hancock@pc.gc.ca

Eusko Jaurlaritza :

Atzerri Arazoetarako Zuzendaritza,
Kanpo Ekintzako Idazkaritza Nagusia
Lehendakaritza Eusko Jaurlaritza
Navarra kalea 2, 01007 Vitoria-Gasteiz
Tel. +34 945 01 79 11
E-posta: harreman-exteriores@euskadi.eus

8. Finantza-ahorrekoak

Sinatzaileek ordainduko dituzte MOU honen esparruko kostuak: bakoitzak bereak.

9. Enplegatuak eta boluntarioak

- (a.) Sinatzaileek, elkarren adostasunarekin, beste alderdi sinatzailearen enplegatuak edo boluntarioak har ditzakete bakoitzaren instalazioetan, bisitan edo lanerako, bakoitzak barne segurtasunerako dituen politika eta prozedurak begiratuta.
- (b.) Sinatzaileek beren enplegatuen soldata, lansaria eta bestelako prestazio batzuk ordainduko dituzte, eta soldata, lansari eta bestelako prestazio horien atxikipean eta bidalketak egingo dituzte bakoitzaren legeria nazionalaren arabera. Sinatzaileek osasuna eta segurtasuna bermatuko dizkiete beren enplegatu edo boluntarioei.

10. Desadostasunak interpretazioan eta aplikazioan

MOU honen aplikazioan edo interpretazioan desadostasunik izanez gero, kontsulten bidez ebatziko dute sinatzaileek.

11. Berrikuspena

- (a) Sinatzaileak MOU hau berrikusteko bilduko dira, hala egokitzen bada, haien beharrak eta helburuak betetzen direla ziurtatze aldera.
 - (b) Sinatzaileek elkarren adostasunez erabakiko dute bileren ordu, toki eta formatua, dela presentziala dela telekonferentziaren bitartez.
-

12. Estatusa

MOU hau ez da juridikoki loteslea.

13. Azken xedapenak

- (a) Sinatzaileen azken sinaduraren datan hartuko du indarra Elkar Ulertzeko Memorandum honek eta hiru (3) urtez iraungo du indarrean. Sinatzaileek badute Elkar Ulertzeko Memorandum hau elkarren adostasunez berritzea, idatziz.
- (b) Elkar Ulertzeko Memorandum honen epea amaitu baino lehen, sinatzaileek baterako ebaluazio bat egingo dute lankidetzaren etorkizuneko norabidea orientatzeko.
- (c) Sinatzaileek badute Elkar Ulertzeko Memorandum hau elkarren adostasunez egokitzea, idatziz.
- (d) Sinatzaileetatik edozein atera daiteke Elkar Ulertzeko Memorandum honetatik, noiznahi, beste sinatzaileari idatziz jakinarazita, laurogeita hamar (90) eguneko aurrerapenarekin.

Ale lauкоztutan sinatua Gatineau, Quebec , 2 november 2017 ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz, eta bertsio guztiek dute balio bera.

KANADAKO PARKEEN AGENTZIAREN aldetik

Izena: Daniel Watson
Kargua: Chief Executive Officer
Kanadako Parkeen Agentziaren aldetik

Sinadura: _____

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aldetik

Iñigo Urkullu Renteria
Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria

Sinadura: _____